

{ datorrena } Iratxe Urizar

Puntu lila txikiak

Azaroaren 25a Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna deklaratu zuen 1999ko abenduaren 17an Nazio Batuen Bil-tzar Nagusiak bere 83. osoko bilkuran. Hamabost urte baino gehiago pasa diren honetan, gaiaren inguruan aurrerapen nabariak eman direla aitortu beharra dago. Biolentzia-
ren desagerpenari dagokionez ez, noski, baina bai bederen arazoaren ikusgaitasunari eta gizarteratzeari dago-kionez. Hau da, ez da arazoarekin bukatu, baina zeri buruz ari garen ezagutzetik hurbilago gaude orain; eta, publikoki behintzat, politikoki zuzena ez den portaera bezala hartzen da gero eta gehiago indarkeria matxista. Kito. Urrutiago joaten ez naiz ausartzen. Izan ere, goa-zen gogoratzera (tira, ez gara horren nagusiak, goazen lotsarik gabe pentsamenduotan elkar ezagutzera) hainbat eraso txikiagotu genituene-
an (jaietan hainbatetan en-tzuten ziren ahozko erasoe-tatik bortxaketa kasuetara, non «beno, neska horrek ja-kin beharko zuen zertara arriskatzzen zen horrela jan-tzita/ horrelako mozkorra-re-kin/ horrelako konpainie-kin» bezalakoak aditzen ziren); erasook ezagutu, eta, hala ere, ezer egin ez genuen.

Gaur egun, eta egindako lanari esker, horrelako sala-
keten aurrean gure haserrea adierazten dugu, gizarte lez. Izututa irakurtzen ditugu

gure gazteei egindako inkestak, non aitortzen duten bortxatu egingo luketela kondena bat jasoko ez dutela ziurtatuko baliete. Izutu? Egin al ziguten guri halako inkestarik? Orain hogeitaz urte mutil gazteak ziren horiei?

Aurten protagonismo berezia hartu du azaroaren 25aren kanpainaren barruan neskatoen aurkako biolen-tziak. Biolentzia sexuala. Ileak puntan jartzeko moduko egunkari titullarrak izan ditugu asteon (Arabako Aldun-diko eskandalutik hasi eta neskato batek egindako gra-baketara, non aitak lasai aitortzen dituen familiaren aurrean alabaren aurkako sexu abusuak, sistema judi-zialaren gabeziak argi azalduz), errealitate oraindik mingarriago bat agerian uzten dutenak: zerbait berria da, edota, emakume helduen aurkako biolentziarekin gertatzen den bezala, beti hor egon den baina isilpean mantendu den zerbait da?

Emakumeen aurkako biolentzia salatzeke orduan ezin dugu latsa sentimendu puntu bat ekidin, errudun-tasun sastada bat: hor zegoela jakinda ere, urte luzeak eman ditugu ezertxo egin gabe. Ondoko etxean oihu eta kolpeak, auzoan ezaguna zen beste kasu hori... Bai-na etxeko giroari zegokion zerbait zen. Familia sekre-tuen bazterreko zerbait. Bidea luzea izan da erasook gi-zarte moduan onargarriak ez diren portaera gisa hartzeko, erasook norberaren aurkakoak bailiran har-tzeko.

Haurren aurkako eraso sexualen kasuan antzeko zer-bait gertatzen dela uste dut. Gaiari buruz hitz egiten hastea baino ez dugu, gure ondoan (edo norberaren-gan) kasuak ezagutzeko: osaba hura, denok maite zuten familia lagun hori... Lau neskatotik batek pairatu ditu/pairatzen ditu sexu abusuak. Goazen zenbaki hori

Badira argia ikusi behar duten sekretuak, salatu beharrekoak. Horrela bakarrik hartuko diogu arazoari neurria jendarte gisa, neskatoen aurkako eraso sexualak inoiz gehiago onartuko ez direla ziurtatuz

gure alabatxoek eskolara estrapolatzera, gaiaren di-mentsioaz konturatzeko. Eta berriro ere erruduntasun sentimendu hori dator: beti isilpean mantendutako ka-suak dira. Biktima bera modu horretan errudun sentia-raziz. Bere garaian emakume helduen aurkako biolen-tziarekin gertatzen zen bezala.

Baina badira argia ikusi behar duten sekretuak. Sala-tu beharreko sekretuak. Modu horretan bakarrik hartu-ko diogu arazoari neurria jendarte moduan, erasook inoiz gehiago onartuko ez direla ziurtatuz. Lau neska-totik bat arazo pertsonal bat izatetik oso urruti dagoe-lako. Agian, hau guztia argitara eramateak gure gizarte-aren pitzadurak erakutsiko ditu. Baliteke gizarte gaixo bat agerian gelditzea. Baina existituko ez balira bezala jokatzek ez gaitu inolaz ere gizarte osasuntsuagoa bihurtzen. •